

bilbao **museoa**

BBKateak **De Vos – Lipchitz**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

De Vos – Lipchitz

18. aretoa

Eraikin zaharra


0 solairua

Europa chic

Martin de Vosek lausodura leunen bidez margotu zuen biluzi liluragarriak begirada erakartzen du, emakumearen jarreraren ezintasuna estali arte –halaxe erakutsia, bete-betean–, eta egiten duen bidaia izugarria, mantu gorria puzten duen haizeak eta horizontean ikusten den itsasontziaren oihalek bultzatua. Lipchitzek, aldiz, eskuz moldatzen du igeltsuzko eskultura kementsua, latz eta zuri uzten duena, non kontakizun mitologikoaren indarkeria guztia kontzentratzen baita.



Eraikin zaharra
0 solairua



Martin de Vos

1532-1603

Pieter de Vos margolariaren semea, XVI. mendearen bigarren erdialdean pintore eta marrazkilari flandestar nabarmenetakoa izan zen. Italiara bidaiatu zuen Brueghel Zaharrarekin batera, eta Venezian Tintoretto ezagutu ahal izan zuen. Garaiko artista italiartzaile nabarmenena bihurtuta, 1558an Anberesera itzuli zenean enkargu garrantzitsuak egin zizkioten, besteak beste, Brunswick-Lüneburgeko dukeak edo Larruginen gremioak. Marrazkien lan-sorta txundigarritik abiatuz lortutako estanpak inspirazio iturri izan ziren ondorengo europar margolari askorentzat. Aldian behin estilo monumental eta xehekoa zen haren pinturak bereizgarri zituen bai manierismo leundua, bai eta linearen nahiz kolorearen tratamendu fina ere, bikain-bikaina.




Europaren bahiketa

c. 1570-1575. Olioa haritz-oholean

Margolanak Europa feniziar printzesaren istorioa kontatzen du, Jupiterrek zezen itxurarekin bahitu zuen harena. Garaipen-bidaia moduan ageri zaigu, baina neskaren jarrera deserosoak eta zezenaren begirada sarkor zuzenak ezohiko basakeria-gertaera baten aurrean gaudela ohartarazten digute. Beste bi eszena daude bigarren planoan: ezkerrean, Europa bainatzen eta jolasean ari da beste emakume batzuekin bahiketaren aurretik; atzealdean, prozesio bat dago, bahitu ostean haren omenez eraikitako tenplura doana. De Vosek bertuosismoa erakusten du hemen, italiar estilo dotorearen ezagutza Flandesko prestakuntzarekin bateratuta.

Horacio Echevarrieta jaunaren dohaintza 1919an



Hieronymus Wierix **Azken judizioa**

c. 1582. Akuafortea paperean

Martin de Vosek marrazki ugari sortu zituen estanpetan irudikaturik margolari askoren inspirazio iturri ohikoak izan zirenak XVII. mendea ongi aurrera arte. Halaxe gertatu zen Azken judizioari buruzko marrazki honekin, non ikusten baitira Michelangeloren ideia errenazentistak, hala nola xehetasun izugarriko irudi monumentalak erabiltzea eta joera manieristari argiki jarraitzen dion espazioaren zentzua. Hieronymus Wierix flandestar grabatzaile ospetsuak grabatu zuen estampa, eta argitaletxe aitzindari batekin dago lotuta: Officina Plantiniana argitaletxearekin, zeinak merkaturatu baitzuen irudia Espainian 1583an.

Jacques Lipchitz

1891-1973

Lituania 18 urterekin utzi zuen, eta Parisen kokatu zen. Han, Arte Ederren Eskolan eta Julian Akademian ikasi zuen. Abangoardiako figurarik garrantzitsuenak ezagututa –Picasso, Modigliani, Matisse, Braque–, laster hasi zen Arte Ederren Areto Nazionalean eta Salon d'Automnen erakusten. Haren lehen lan kubistak, betiere erreferentzia figuratiboekin, bilakatzen joan ziren, solidoa eta espazio hutsa irauli zituen eskultura mota “gardena” eratuz, eta geometria forma lerromakurrekin ordezkatu zuen. Igeltsua, zura, brontzea eta, batzuetan, harria zuzenean landu zituen. 1941ean, AEBetara erbesteratu zen erregimen nazitik ihesi. Harrezkero, haren langintzari tentsio existenzial indartsua eta mundua hobetzeko borroka etengabea dario, gerrako esperientzia traumatikoa oinarri.



Hagar in the Desert or Hagar III (Agar basamortuan edo Agar III)

1949-1957. Igeltsu patinatua

Genesiaren arabera, Sarak, umerik ezin zuenez izan, Agar esklaboia eraman zion Abrahami, harekin oinordekotza izan zezan. Hala jaio zen Ismael, baina ama-seeek basamortura ihes egin zuten, Sararen tratu txarretatik aldentzeko. Haurra egarriz hiltzear zegoela, Jainkoak emakumearen erregua aditu zuen, iturri bat ikusarazi zion, eta Ismael aske izango zela agindu, ondorengotza luzearen sorburu. Emakumearen eta haurraren formak deskonposatuta daude eta tentsio biziz eragiten diote elkarri, artistaren erbestea ordezkatzeko duen multzo aztoragarria eratuta.



Variation of the Rape of Europa G (Europaren bahiketa, G aldagaia)

c. 1969-1970. Igeltsua

Lipchitzen hasierako lanak definitu zituen geometrizazio kubistatik aldenduta, forma organikoak bihurtu egin dira, eta altxatu, gertaera mitologiko honetako indarkeria irudikatzeko. Gaia arte klasikoan feniziar printzesaren edertasunez estilizatzeak bide eman dio hemen, gupidagabe baina zirraragarri, kontakizunaren benetako zentzuari, artistak bizitakora eramanda: indartsuak ahulari eragin dion tratu txarra eta indarkeria salatzea.

Jacques eta Yulla Lipchitz Fundazioaren dohaintza 2004an



Rape of Europa III (Europaren bahiketa III)

c. 1968-1972. Koloretako litografia paperean

Lipchitzek behin eta berriz errepikatu zuen Europaren bahiketaren gaia, grabatze-teknika desberdinen bidez ez ezik, baita hiru dimentsiotan ere. Estantpak, horrenbestez, gaiari ekin aurreko azterketak izan daitezke, edo eskultura-lanen ondorengo gogoetak, aldaera moduan eginak. Litografia honetan, kolore gorri biziak menderatze bortitzaren ideia azpimarratzen du, ia odoltsua, eta inpaktua eragiten dio irudiari.

Marlborough galeriaren dohaintza 2003an



Rape of Europa VI (Europaren bahiketa VI)

c. 1968-1972. Koloretako litografia paperean

Marlborough galeriaren dohaintza 2003an

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.